



**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

**Bermeoko Udala**

**2020-2022ko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren onarpena**

2020ko apirilaren 24an izandako batzarrean Udaleko Osoko Bilkurak 2020-2022 urteetarako Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa onartu duela jakinarazten da, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean bere iragarkia argitaratzeko jartzen da.

Bermeon, 2020ko ekainaren 4an. —Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense

**DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2022****1. Sarrera**

Oinarrizko izaera dauan diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dino: «administrazioko organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen daben beste guztiek, aldez aurretik, diru-laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dabez horreen aplikazioagaz lortu nahi dabezan helburuak eta eraginak, horreek guztiak lortzeko behar dan epea, ustez egongo diran kostuak eta finantziazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.»

Diru-laguntzen plan estrategiko honen helburua, Bermeoko Udalak daukazan baliabideekaz, ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea da, beti be, aurrekontuen egonkortasunerako mugak aintzat hartuta. Bertan, plangintza tresna dan heinean, datozen hiru urteetan lortu nahi diran helburu estrategikoak azaldu dira, eta baita euretara iristeko udal sailek kudeatuko dabezan diru-laguntzen lerroak zehaztu be.

**1.1. Arau-esparrua eta egungo testuingurua**

Bermeoko Udalak 2020-2022 urteetan emongo dauazan diru-laguntzak arau eta dokumentu honeen arabera emongo dira:

- 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.
- 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorren Arautegia ezartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- 2020-2022ko Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau, berariazko oinarriak eta jagokozan deialdiak, konkurrenteen kasuetan eta jagokozan hitzarmenak, zuzeneko diru-laguntzen kasuetan.

**1.2. Izaera juridikoa**

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorrak izateko, jagokozan kredituak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak banatzeko deialdiak egin.

Diru-laguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diran aurrekontu kredituak eta diru-laguntzak arautzen dabezan oinarriak uneoro helburu horreetara egokitu beharko dira

Diru-laguntzen plan estrategiko hau onartzeak ez dau inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitekezanentzat, eta ezingo dabe inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu plana ez bada bere horretan betetzen.

**1.3. Planaren printzipio orokorrak**

Plan honen printzipio orokorrak honakoak dira:

- Publizitatea eta gardentasuna. Plan estrategiko hau publiko egingo da eta urtero diru-laguntzen deialdiak kaleratuko dira eta Datu Base Nazionalean publikatu.
- Lehiakortasuna. Jasotzaileak izateko baldintzak betetzen dituzten guztiak aurkeztu ahal izango dira.
- Bardintasuna eta diskriminazio eza. Fondo publikoen banaketan bardintasuna bermatu beharko da, diru-laguntza izendun edo zuzenaren kaltetan gerta barik.
- Objektibitatea. Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera emongo da diru-laguntza, onuradun izan daitekezanek erispide horreek aurrez ezagutzen dabezala bermatuz.
- Eraginkortasuna eta efizientzia. Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko dalarik.
- Diru-laguntza eskatzen daben erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan bardintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen dirala



bermatu behar dabe. Era berean, alkarte edo norbanakoek ere diru-laguntza jasotzeko, generoen arteko bardintasuna ezingo dabe urratu.

## **2. Diru laguntzen plan estrategikoa**

### *2.1. Planaren helburu estrategiko orokorrak*

Udalak, deialdi publiko bidez edo zuzeneko diru-laguntza bidez, diru-laguntzak emongo deutsez pertsona, alkarte edo erakunde pribatuei herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzeko.

Udal gobernuaren agintaldi planagaz bat eginik plan honen helburu estrategiko orokorrak honeek dira:

1. Nortasun propioaren jabe den Bermeo; bere izaeragaz. Herri euskalduna, itsas-herria.
2. Bermeo irekia. Itsasoari eta munduari irekia. Eta baita beste kulturetara irekia ere.
3. Bermeo bizia. Kultura-, kirol- eta gizarte-jarduera garrantzitsuak izango dauzan herria.
4. Bermeo ekintzailea. Egiteko, ekiteko eta sortzeko ilusioa berreskuratu eta zabalduko dauana.
5. Bermeo kolaboratzaile eta parte-hartzailea. Udalagaz besoz beso arituko diran eragile publiko eta pribatuek. Herri bat, non pertsona, alkarte, eragile, erakunde publiko eta pribatuek lankidetzaz sare trinkoa ehunduko daben.
6. Bermeo euskalduna. Euskara geure parte dalako. Gure identitate, kultura eta pasinoaren parte.
7. Inguruagaz errespetuz jardungo dauan Bermeo. Herri jasangarria, naturarekiko errespetuz arituko dana; eta jasangarria, baita, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik.
8. Bermeo solidarioa. Inor atzean geldituko ez dan herria.

### *2.2. Onarpenerako organo eskuduna*

Alkatetzak, laguntzak edo diru-laguntzak emoteko organo eskudunak, kudeaketa ekonomikoa egiteko funtzioa dauka, eta beraz, diru-laguntzen plan estrategikoa gauzatzekoa.

Beraz:

- Diru-laguntza programak aurrekontu kreditu egokia eta behar bestekoa egotearen menpe dagoz
- Lehiaketa bidezko diru-laguntzak, izendun diru-laguntzak eta zuzenak emon aurretik gastua onartu beharko da Bermeoko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.
- Eta azkenik, diru-laguntzak emon aurretik, diru-laguntzak arautzen dabean deialdiak Alkatetzak edota beronek eskuordetutakoak onartu beharko ditu.

Baina, azken baten, Osoko Bilkura da diru-laguntzen plan estrategikoa onartu behar dauana, halanda be, eskumen hau eskuordetu ahal izango da Alkatetzarengan edo Tokiko Gobernu Batzarrarengan.

### *2.3. Epealdia*

Plan estrategikoa honek hiru urteko iraupena izango dau, zehazki, 2020-2022 epealdia, nahiz eta diru-laguntza lerro batzuk aurretik indarrean egotea gerta daitekeen.

Plan estrategikoa honetan jaso gabeko diru-laguntza lerro bat gehitu nahi izan ezker, plana aldatu beharko da, aldez aurretik edo aldi berean.

**Jarduteko ildoak**

Diru-laguntzak hurrengo jarduteko ildoak jarraituta emongo dira:

- Proiektu estrategikoak gauzatzekoa. Bermeo eta eskualdeko ondarearen mantenu eta balioztapenean jarduteko edota geure nortasuna balioan ipiniz eta daukien trakzinorako gaitasuna eta ekonomia lokalean euki daiken eragin positiboa aitortuz, gure herriaren zabalkundea eta merkataritza eta ostalaritzaren aurrerabidea eragiten daben ekimenak ahalbideratzea.
- Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzekoa. Herritarren bizitza aktiboa sustatzeko eta kirol beharrei erantzuteko. Baita bertoko kirolak sustatzea be.
- Eta herriko jarduera ekonomikoa sustatzen dabenei laguntzekoa. Beste baliabideek estaltzen ez dabezan beharrizanei bideratutakoa. Gabeziak daukiezan eta baldintza bereziak betetzen dabezenei laguntza emotea.
- Herrian edota auzoetan ekitaldi desbardinak antolatzen dabezan kultur talde edo pertsona fisiko-juridikoei zuzendutakoa. Herrian edota auzoetan antolatzen dabezan ekitaldiak finantziatzeko.
- Euskara arloko proiektu eta ekimenak gauzatzekoa. Euskararen ezagutza areagotzeko eta erabilera sustatzeko.
- Herrian sortu daitekezan egoera berezietan herritarrei.

Ildo bakotxerako eukiko doguzan diru-laguntzetan, diru-laguntza lerroa, helburu estrategikoa, helburu espezifikoak, jarduera- plana, helburu horreek lortzeko epeak, aurreikusten diran kostuak eta finantza iturriak adieraziko doguz.

**1.1. NORTASUN PROPIOAREN JABE DAN HERRIA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Proiektu estrategikoak gauzatu.
HELBURU ESTRATEGIKOA	Geure nortasuna balioan ipini, daukien trakzinorako gaitasuna eta ekonomia lokalean euki daiken eragin positiboa aitortuz eta gure herriaren izenaren zabalkundea egitea.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"><li>– Herriko taldeakaz egitarau sendoa bultzatzea.</li><li>– Bermeo eta bermeotarron nortasuna balioan ipintea.</li><li>– Herriko ekonomia sustatzea eta eragin positiboa lortzea.</li><li>– Herritar eta bisitarien parte-hartzea sustatzea.</li><li>– Bermeoren izena eta gure herriko gertakari historikoen ezagutza zabaltzea balioztatzea.</li><li>– Jarduera arruntetik haratago antolatzen diran jolas izaerako kirol-jarduera berezien antolaketa sustatzea.</li><li>– Herritar eta bisitariak erakartzeko gaitasuna daukien kirol-ekimenak bultzatzea.</li><li>– Herriko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzen lagunduko dabezan ekintzak antolatzea.</li></ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakotxean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**3.1. BERMEO BIZIA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Beste baliabideek estaltzen ez dabezan beharrizanei laguntza emon.
HELBURU ESTRATEGIKOA	Gabeziak daukiezan edo/ta baldintza bereziak betetzen dabezan pertsonen laguntza emotea.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"><li>– Beste baliabide batzuk estaltzen ez dabezan beharrianak.</li><li>– Famili ugarietarako etxebizitzaren Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren kuota ordaintzeko finantziazio-laguntza emotea.</li><li>– Auzo-taxiaren bidez auzotarren bizitza erraztea eta auzotarrak herrira urreztatzea</li><li>– Bazterketa jasateko arriskuan edo premiazko beharrianean egon arren beste laguntzarik hartzen ez daben familiak laguntzea.</li></ul>



JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**3.2. BERMEO BIZIA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Bertoko kirola eta herritarren bizitza aktiboa kirolagaz sustatu
HELBURU ESTRATEGIKOA	Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko Bermeoko arraun alkarteari eta futbol taldeari, taldearen jarduera arruntaren kudeaketa finantzatzeko, herriko neska-mutilek, ume zein gazteek arraunean zein futboleko aritzeko aukerea euki daien laguntza emotea
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte- harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko .</li> <li>– Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu alkarteen laguntzeagaz.</li> <li>– Kirol praktika federatua bultzatu bere emaitzak eta antolaketa optimizatuz.</li> <li>– Alkartegintza sustatu</li> <li>– Arraun eta futbol taldeen jarduera eta ekimenen antolaketa bermatu</li> <li>– Arraun eta futbol taldeen harrobiaren etorkizuna bermatu</li> <li>– Kirola praktikatzeko herritarren aukerak areagotu.</li> <li>– Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte- harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.</li> </ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**3.3. BERMEO BIZIA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Herrian edota auzoetan ekitaldiak antolatzea.
HELBURU ESTRATEGIKOA	Bermeoko kultur taldeek edo bestelako pertsona juridikoei herrian edota auzoetan antolatzen dabean ekitaldiak finantzatzeko diru-laguntza programa osotzea.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Gure herriko kultura, nortasuna eta jaien zabalkundea sustatzea.</li> <li>– Euskal folklorea eta kultura zabaltzeko izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea.</li> <li>– Beste komunitate eta udalerrietan, alkartrukeak eta euskal kultur ondarearen zabalkundea sustatzea.</li> <li>– Udalak antolatutako ekintzetan parte-hartzea lortzea.</li> <li>– Sorkuntza eta zabalkunde artistikoa bultzatzea.</li> <li>– Herrian eta auzoetan tradiziozkoak diran jaiak antolatzea.</li> <li>– Herritar eta auzotar guztiei bakotxaren ohiturak ezagutzera emotea.</li> <li>– Herrian eta herritik kanpoko jendea erakartzen dauzan ekintzak antolatzea.</li> </ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**6.1 BERMEO EUSKALDUNA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Euskara arloko proiektu eta ekimenak gauzatu.
HELBURU ESTRATEGIKOA	Bermeotarren artean euskararen ezagutza areagotu eta euskararen erabilera sustatzea ahalbideratuko dabean programak eta ekintzak sustatzea.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Euskara ikasten dabiltzan bermeotarrei erraztasunak eskaintzea.</li> <li>– Bermeoko hizkuntza paisaia euskalduntzea.</li> <li>– Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea.</li> </ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.



HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera

**7.1. BERMEO JASANGARRIA NATURAN, EKONOMIAN ETA GIZARTEAN**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Proiektu estrategikoak gauzatu.
HELBURU ESTRATEGIKOAK	Bermeo eta eskualdeko ondarearen mantenu eta balioztatpenean jarduteko edota geure nortasuna balioan ipiniz, daukien trakinorako gaitasuna eta ekonomia lokalean izan daikien eragin positiboa aitortuz, gure herriaren izenaren zabalkundea eta merkataritza eta ostalaritzaren aurrerabidea eragiten dabezan ekimenak ahalbidetzea.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Herriko taldeakaz egitarau sendoa bultzatzea.</li> <li>– Bermeo eta bermeotarron nortasuna balioan ipintea.</li> <li>– Bermeo eta Urdaibaiko ondarea zaintzea eta ezagutzera emotea.</li> <li>– Herriko ekonomia sustatzea eta eragin positiboa lortzea.</li> <li>– Herritar eta bisitarien parte-hartzea sustatzea.</li> <li>– Bermeoren izena eta gure herriko gertakari historikoen ezagupena zabaltzea balioztatzea.</li> <li>– Jarduera arruntetik haratago antolatzen diran jolas-izaerako kirol-jarduera berezien antolaketa sustatzea.</li> <li>– Herritar eta bisitariak erakartzeko gaitasuna daukien kirol-ekimenak bultzatzea.</li> <li>– Herriko merkataritza eta ostalaritza dinamizatzen lagunduko dabezan ekintzak antolatzea.</li> </ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**8.1. BERMEO SOLIDARIOA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Gizarte arloko ekimenak gauzatu.
HELBURU ESTRATEGIKOAK	Gizarte-ekintza arloan jarduera garatzen daben alkarteekaz alkarlana bermatzea, talde honeen funtzionamendu-gastuetan lagunduz zein helburu sozialakaz egiten dabezan ekintzak ahalbideratuz.
HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Garapen bidean dagozan herrietako hizkuntza-komunitate minorizatuakaz lankidetzaz bideratzea.</li> <li>– Krisi ekonomikoaren ondorioz muturreko egoerak bizi dabezan bermeotarrei laguntza emotea.</li> <li>– Administrazioaren gizarte-ekintzaren osagarriak diran lanak garatzen dabezan alkarteetan jarduerak sustatzea eta herrian talde honeen presentzia bermatzea.</li> <li>– Herritarrei kalitatezko gizarte-zerbitzuak eta giza-balioetan oinarritutakoak eskaintzea.</li> <li>– Gizarte arloan boluntariora eta auzolana bultzatzea.</li> </ul>
JARDUERA- PLANA	Oinarriak prestatuta konkurrentziaz eta hitzarmenak aurrekontuan nominatiboki agertuz.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Aurrekontu bakoitzean adierazitako kostuak.
FINANTZA ITURRIAK	Urtero finkatuko dira aurrekontuaren arabera.

**8.2. BERMEO SOLIDARIOA**

DIRU-LAGUNTZA LERROA	Herrian sortu daitekezan egoera berezietan herritarrei eta herriko jarduera ekonomikoa sustatzen dabenei laguntzekoa
HELBURU ESTRATEGIKOAK	Egoera berezien aurrean, gure herrian jarduera ekonomikoa mantentzeko zailtasunak daukiezane laguntzea, baita be ekonomikoki arazoak euki leikiezan herritarrei be.



HELBURU ESPEZIFIKOAK	– Salbuespeneko egoera baten ondorioz muturreko egoerak bizi dabezan bermeotarrei edota bertoko enpresei laguntza emotea.
JARDUERA- PLANA	Dirulaguntza lerro hau salbuespenekoa izango litzateke, eta kasu horretan, Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko leukez kasuan kasu jarriko litzatekezan berriazko oinarriak.
HELBURUAK LORTZEKO EPEAK	Urtero.
AURREIKUSTEN DIRAN KOSTUAK	Ez-usteko egoeraren aurrean ikusiko da zelan moldatu aurrekontua.
FINANTZA ITURRIAK	Finkatuko da beharizanaren arabera.

### 3. Diru-laguntzak emoteko prozedura eta jasotzaileak

#### 3.1. Diru-laguntzak emoteko prozedura

Bermeoko Udalak diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorra kontuan izanik konkurrentziakoak zein diru-laguntza zuzenak eman ahal izango ditu, konkurrentziako kasuetan deialdi publikoa eginez.

- Konkurrentzia lehiakorra erabiliko da diru-laguntzak emoteko prozedura orokor gisa.

Aurkezten diran eskaerek oinarri arautzaileek ezartzen dabezan baldintzak bete behar dabe eta baita deian agertzen diranak be, eta diru kopuruak adjudikatuko dira eskuragarri dagoen kredituaren barruan, deialdian ezarritako mugagaz lortutako balorazioaren arabera.

Hauxe da lehiaketa: diru-laguntzak emoteko prozedura, aurkezten diran eskaerak erkatzen dauzana lehentasun-hurrenkera ezartzeko. Oinarri arautzaileetan aurretik ezarrita egoten diran balioespen-irizpideak erabiltzen dira horretarako, eta irizpide horreek aplikatuz balioespenik altuena lortzen daben eskaerei emoten jake diru-laguntza, erabilgarri dagoan kredituaren barruan deialdian ezartzen dan mugagaz.

(Salbuespenez), (prozedura konkurrentziaz izan daiteke), diru-laguntza jasotzeko, oinarri arautzaileek ezartzen dabezan baldintzak bete besterik ez dabela egin beharko eskatzaileek; ez da konparaziozko balioespenik egingo, ez eta baterako aintzatespenik ere. Horrelako kasuetan, eskaerak modu ordenatuan ebartziko dira, espedienteak erabat osatuta geratzen diran unearen arabera.

- Diru-laguntza zuzenak:
  - Diru-laguntza zuzen izendunak: lankidetzeta hitzarmenetako araubidea jarraituz emongo dira. Hitzarmenak urteko lehen sei hilabetekoan sinatuko dira.
  - Lege-mailako arauen ondorioz emondako diru-laguntza zuzenak: kasu honetan lege bidez zehazten da diru-laguntza, horren zenbatekoa eta erabili beharreko prozedura.
  - Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioak tarteko dirala justifikatzen daben diru-laguntza zuzenak: Diru-laguntza honeek salbuespenez eta deialdi publikoa egitea ezinezkoa dala justifikatzen danean, lankidetzeta hitzarmenetako araubidea jarraituz edo erabagian bertan jarritako arauen arabera emongo dira.

#### 3.2. Jasotzaileak

Diru-laguntza programa bakoitzean baldintzak betetzen dabezan pertsona fisiko edo juridikoak.

**4. Diru- laguntzen planaren kontrola, jarraipena eta gardentasuna****4.1. Kontrola eta jarraipena**

Plan estrategikoaren kontrola eta jarraipena bi eratan egingo da urtero:

- Kontrol ekonomiko-finantzazkoa: Udaleko kontu-hartzailletza orokorrak egingo dau, indarrean dagoan araudiak jasotzen dauzan baldintzetan eta kontu-hartzailetzak zehazten dauzan prozedurekaz.
- Planaren jarraipen eta kontrola egin beharko dabe sailletako arduradunak, helburuak betetzeko zeozer aldatu edo gehitu behar dan jakiteko edo jarraibide ildo barriak ezarteko.

Plan estrategikoaren indarraldia amaituta eta hurrengo plana egiteko sail bakotxak justifikazio memoria egin beharko dau, honako zehaztasunak azalduz:

- Lerro bakoitzari buruzko informazioa, bertan zehaztuz emondako diru-laguntzak, justifikatutakoak, uko egindakoak eta itzultitakoak (edo itzultzeko prozesuan dagozanak).
- Benetako kostuak, kontuan hartuta aurreikusitako kostuak eta akzio plana.
- Ondorioak edo balioespen orokorra.
- Hurrengo plan estrategikorako iradokizunak.

**4.2. Gardentasuna**

Udalaren webgunean argitaratuko dira emondako diru-laguntza guztiak. Bertan zehaztuko da erakunde onuraduna, diru-laguntzaren zenbatekoa eta lagundutako egitasmo eta ekintza. Era berean, «Base de Datos Nacional de Subvenciones» en argitaratuko dira.